



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko irailaren 30a

109. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-24/LEY-00008. Foru Legea, Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxikitako osasun arloko langileen lanbide karreraren sistema ezartzen duena, salbu eta fakultatibo espezialistena, osasun arloko beste fakultatibo batzuen eta osasun arloko diplomadunena. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-24/PRO-00011. Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretua aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsi du (8. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/MOC-00092. Erabakia, zeinaren bidez Estatuko Gobernuak premiatzen baita Herritarren Segurtasuna Babesteko Legea alda dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (10. or.).

—11-24/MOC-00094. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita jarrai dezan betetzen iaz egin ziren akordioak, bakarrik dauden adingabeen harrerari buruzkoak. Osoko Bilkurak onetsi du (10. or.).

—11-24/MOC-00096. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes, konfiantza eta konpromisoa adierazten baitzikio Nafarroako Unibertsitate Publikoari. Osoko Bilkurak onetsi du (11. or.).

—11-24/MOC-00099. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita lankidetzaren jardun dadin Garraio Ministerioarekin eta Espainiako Gobernuarekin, bermatze aldera nazioarteko zabalerako abiadura handiko trena 2030a baino lehen iritsiko dela Iruñera. Osoko Bilkurak onetsi du (12. or.).

—11-24/MOC-00101. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernuari eskatzen baitzaio behar diren izapide guztiak bizkortzen jarrai dezan, berme guztiak mantenduz, abiadura handiko trena ahalik eta lasterren osatu eta amai dadin, Nafarroan, eta, bereziki, Zaragoza eta Castejón lotzen dituen tartea. Osoko Bilkurak onetsi du (12. or.).

- 11-24/MOC-00095. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Kataluniaren finantzaketa berezirako akordioa. Osoko Bilkurak ezetsi du (13. or.).
- 11-24/MOC-00100. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurriak har ditzan etxebizitza bat eskuratzea errazteko. Osoko Bilkurak ezetsi du (13. or.).
- 11-24/MOC-00102. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aintzat har dezan Euskararen Nafar Kontseiluaren irailaren 12ko txostena. Osoko Bilkurak ezetsi du (14. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-24/LEY-00008. Foru Legea, Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoi atxikitako osasun arloko langileen lanbide karreraren sistema ezartzen duena, salbu eta fakultatibo espezialistena, osasun arloko beste fakultatibo batzuen eta osasun arloko diplomadunena

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko irailaren 19an egindako bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: Foru Legea, Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoi atxikitako osasun arloko langileen lanbide karreraren sistema ezartzen duena, salbu eta fakultatibo espezialistena, osasun arloko beste fakultatibo batzuen eta osasun arloko diplomadunena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoi atxikitako osasun arloko langileen lanbide karreraren sistema ezartzen duena, salbu eta fakultatibo espezialistena, osasun arloko beste fakultatibo batzuen eta osasun arloko diplomadunena

HITZAURREA

2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legeak bere hogeita laugarren xedapen gehigarrian ezartzen du osasun arloko langile guztien lanbide karrera arautzeko arau-esparru baterako proposamena. Hala, konpromiso bat jasotzen du arau-esparru baterako proposamena lantzeko 2023ko lehen lauhilekoan, langileen legezko ordezkartzarekin batera, arautuko duena gaur egun aitortuta ez duten osasun arloko langileen lanbide karrera eta horren pixkanakako ezarpena, behar

besteko aurrekontu-zuzkidura eskueran suertatu ahala.

Langileen arloko araudiari dagokionez, urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeak, zeinak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko araubidea arautzen baitu, 34. artikuluan ezartzen du zein diren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak erabiliko dituen formulak bere langileen barne-igoerarako, eta d) letran aipatzen du Nafarroako Gobernuak, kasua bada, foru-lege proiektu bat igorriko diola Parlamentuari, lanbide karreraren edo beste elementu batzuetan oinarrituta-ko lansari-pizgarriak sortzeko.

Bestalde, apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legeak, zeinaren bidez arautzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema, eta azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legeak –lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua zabaltzen du Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomotako osasun arloko beste langile batzuetara– Osasun Departamentuaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema bat ezarri zuten Nafarroako Foru Komunitatean.

Era berean, maiatzaren 30eko 8/2008 Foru Legeak –Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko diplomadunen lanbide karreraren sistema ezarri eta finantzabiderako kreditu gehikuntza onesten du– lanbide karrerako sistema ezarri zuen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako osasun arloko diplomadunentzat, eta halaber zaie aplikatzeko Osasun Departamentuko osasun arloko diplomadunei eta hari atxikitako erakunde autonomoi.

Zalantzarik gabe, profesional horien lanbide karrera-ezartzeak osasun-laguntzaren hobekun-

tza kuantitatibo eta kualitatiboa ekarri du. Horretarako, funtsezko alderdiak garatu dira, hala nola etengabeko prestakuntza zer eta kalitate tekniko-asistentziala hobetzeko banakako ahaleginaren adierazletzat hartzea, bideak irekitzea profesionalen parte-hartze handiagoa eta eraginkorragoa izan dezaten osasun-zerbitzuen zuzendaritzan eta kudeaketan, eta motibazio- eta pizgarri-mekanismoak sartzea, modua emanen duten ahaleginen bideratzea egokia izan dadin eta lortutako emaitza asistentzialak aitortuak izan daitezten.

Langile horiekin lortutako esperientzia ikusita, eta osasun-laguntza hobetzeko asmoz, lehentasunezkoztat jotzen da Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxikitakoak diren osasun arloko gainerako langileen inplikazioa eta garapen profesionala.

Horri dagokionez, kontuan izan behar da herritarrak osasun arloko eskaria handitzen ari direla, eta horrek kasuko langileak behartzen dituena osasun arloko jardueraren kudeaketa efizientea egitera. Era berean, osasun arloan etengabeko aurrerapen zientifiko eta teknologikoak gertatzen ari dira, eta horrek beharrezko egiten du eremu horretan lan egiten duten langileak etengabeko eguneratze eta prestakuntzan jardun daitezten. Horregatik, gaur egun herritarrek eskatzen dutenaren pareko osasun-prestazioa lortzeko, beharrezkoa da prestazio hori ematen duten langileen parte-hartze aktiboa.

Foru lege honen bidez, buru ematen zaio lanbide karrerako sistema Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxikitako osasun arloko langile guztiei aplikatzeari, xede gisa harturik tresna eraginkorra izatea osasun-alorreko zerbitzu-ematearen hobekuntzan pertsona horiek motibatze eta inplikatze.

Foru-lege aurreproiektuaren testua negoziazio kolektiboan aztertu zen Osasun Departamentuari atxikitako erakunde autonomoen Mahai Sektorialean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile funtzionarioen eta estatutupeko langileen Negoziazio Mahaian.

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da lanbide karrera sistema bat ezartzea, Osasun Departamentuko osasun arloko langileei eta haren aplikazio-eremuko erakunde autonomoetako aplikatze.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Foru lege honetan araututako lanbide karrerako sistema aplikatuko zaie Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxikitako

langileei, baldin eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berriarazko araubidea arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinen A apartatuan jasota dauden edo etorkizunean jasoak izanen diren osasun-estamentuetakoren batean badaude, salbu eta "Fakultatibo espezialistak", "Beste fakultatibo batzuk" eta "Osasun arloko diplomadunak" estamentuetako langileei.

3. artikulua. Definizioa.

Lanbide-karrera langileen motibazioerako eta osasun-zerbitzuen hobekuntzarako lanabes bat da, eta mamitzen du profesionalen nork bere kasa aurrerapausoak emateko duten eskubidea, jakintzari dagokionez lortu duten garapen profesionalaren aitortpen gisa; jakintza horren parte da 8.2.c) artikuluan aipatzen diren titulazioak eskuratzea, esperientzia lortzea eta haiek diharduten erakundearen helburuak betetzea.

4. artikulua. Lanbide-karrerako mailak.

1. Foru lege honen aplikazio-eremuko estamenturen batekoak diren langileen lanbide karrerako sistemak lau maila ditu.

2. Estamentu bakoitzaren barruan lanbide karrerako maila batetik bestera igotzeko, estamentu horretan emandako urteei eta garapen eta hobekuntza profesionalari dagozkien merezimenduak frogatu beharko dira.

5. artikulua. Lanbide-karrerako ordainsaria.

1. Foru lege honetan arautzen den lanbide karrera ordainduko da berriarazko osagarri baten bidez. Osagarri hori ordainsari osagarritzat joko da, urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 6. artikularen ondorioetarako. Foru lege horrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berriarazko araubidea arautzen du.

2. Foru lege honen aplikazio-eremuko langileek lanbide karrerako ordainsaria jasoko dute, titulazioaren arabera eta zer estamentutan diharduten kontuan izanda, baldin eta gainerako baldintzak betetzen badituzte.

3. Lanbide-karrerako osagarria hamalau hilekotan ordainduko da; horietako hamabi arruntak izanen dira, eta bi, apartekoak.

6. artikulua. Mailaz igotzeko baldintzak.

1. Lanbide-karreraren mailaz igotzeko, eskaeraren egunean foru lege honen 7.1 artikuluan xedatutako puntuazioa lortu beharko da, eta aldi berean hartu beharko dira kontuan bai jarduera profesionalen emandako urteak bai garapen eta hobekuntza profesionala, honako zertzelada hauekin:

a) Eskatutako guztizko puntuazioaren ehuneko 50: kasuko estamentuan emandako zerbitzu-urteen arabera (puntu bat, horretan aritutako urte oso bakoitzeko), foru lege honen 7.1 artikuluan adierazitako gehieneko puntuazioraino.

b) Eskatutako guztizko puntuazioaren ehuneko 50: jarduera profesionalaren eta garapen eta hobekuntza profesionalaren baldintzak gainditzeagatik, foru lege honen 7.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

	Iraupen-aldiaren arabera behar den puntuazioa	Baremoaren arabera (garapen eta hobekuntza profesionala) behar den puntuazioa	Eskatutako puntuazioa, guztira
I. maila	5	5	10
II. maila	7	7	14
III. maila	8	8	16
IV. maila	5	5	10

2. Egonaldia betetzeko, kontuan hartuko da zenbat urte egin diren dagokion estamentuan Europar Batasuneko estatu kideetako osasun-sistema publikoetan. Estamentu horrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko araubidea arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskina-ren A apartatuan jasotako estamentuetako bat izan behar du.

Orobat, ondorio guztietarako kontatuko da zerbitzu bereziak egiten emandako denbora, edozein administrazio publikotan izendapen askeko postuetan zerbitzu ematen aritu izanaren ondoriozkoa nahiz prestakuntza, hobekuntza eta ikerkuntza egoeran egotearen ondoriozkoa.

8. artikulua. Garapen eta hobekuntza profesionala baloratzeko baremoa.

1. Ebaluazioaren xede den aldiari erdietsitako garapen eta hobekuntza profesionala erregelamendu bidez onesten den baremoaren arabera zenbatuko da.

2. Baremoak bereiz baloratuko ditu jarduera eta jardun profesionala; garapen tekniko eta antolamenduzkoa; eta prestakuntza, irakaskuntza eta ikerkuntza.

Ebaluazioa gainditzeko eta, estamentu bakoitzaren barruan, lanbide karrerako maila jakin batera igotzeko, erregelamendu bidez ezarriko da lortu beharreko gutxienezko puntuazioa. Puntuazio hori honako multzo hauetan guztietan edo batzuetan lortu behar da, baloratu beharreko estamentuaren eta espezialitatearen arabera:

2. Maila igoerak eragina izanen du artikulua honetan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen den egunaren ondorengo urtarilaren 1ean.

7. artikulua. Maila bakoitzeko egonaldiak eta mailaz igotzeko eskatzen den puntuazioa.

1. Lanbide-karreran mailaz igo ahal izateko, beharrezkoa izanen da jarraian zehazturiko puntuazioa lortu eta egonaldia egin dela frogatzea:

Jarduera eta jardun profesionala: atal honetan baloratuko dira profesionalaren jarduna, haren inplikazioa, unitatearen helburuei eta egindako lanaren kalitateari egindako ekarpena eta izandako konpromisoa, pazienteen gogobetetasun maila, eta esperientzia, ezagutza, trebetasunak, jarrera nahiz ahalegin pertsonala, zeinek lanbide-ondarea osatzen baitute eta lan profesionala egiteko modua tankeratzen baitute.

Ondorio horietarako, langileek eskubidea dute erakundearen eta beren unitatearen helburuak ezagutzeko eta azken horien ezarpenean parte hartzeko.

b) Garapen tekniko eta antolamenduzko jarduerak: baloratuko da profesionalak parte hartzea jardueretan, proiektuetan, lantaldeetan, kalitate-taldeetan, burutzetan edo koordinazioetan, bai eta osasun-laguntza hobetzen eta Osasun Departamentuaren eta haren erakunde autonomoen helburuak betetzen modu eraginkorrean laguntzen duen beste edozein jardueratan ere.

c) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa: atal honetan baloratuko dira borondatezko etengabe-ko prestakuntzako jarduerak, irakasle nahiz ikasle gisakoak; halaber, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren barrenean langileen maila-igoera ahalbidetzen duten osasun arloko titulazio ofizialak eta lanpostuarekin zerikusia duten beste titulazio batzuk, bai eta euskarazko eta Europar Batasuneko hizkuntzetako jakintza frogatzen dutenak ere, lanpostu bakoitzak herritarrekiko duen arretaren edo tratua mailaren arabera, eta foru lege honen aplikazio-eremuan sartuta

dauden pertsonen hobetze eta eguneratze profesionala dakarten ikerketa-jarduerak ere bai.

9. artikulua. Ebaluazio-batzordeak.

1. Erregelamendu bidez ezarriko d(ir)a beharrezkoa(k) d(ir)en ebaluazio-batzordea(k). Zilegi izanen da estamentu desberdinak aldi berean eta horien ezaugarrien arabera baloratuko dituzten ebaluazio-batzordeak ezartzea.

2. Ebaluazio-batzordeek osaera paritarioa izanen dute, erregelamenduz ezarritako arauen arabera.

10. artikulua. Egiatzipena.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, kasuko ebaluazio-batzordeak eskatuta, lanbide karrerako maila lortuaren esleipena eginen dio profesional bakoitzari, organo eskudunaren ebazpen baten bidez.

Lehen xedapen gehigarria. Lanbide-karrerako osagarriaren zenbatekoak.

1. Lanbide-karrerako osagarriaren urteko zenbatekoa titulazioaren eta atxikipen-estamentuaren arabera ezartzen da, eta honela zehazten da:

– C mailako estamentuak:

I. maila: 1.652,98 euro.

II. maila: 3.305,96 euro.

III. maila: 4.958,94 euro.

IV. maila: 6.611,92 euro.

– D mailako estamentu titulaziodunak:

I. maila: 1.414,84 euro.

II. maila: 2.829,68 euro.

III. maila: 4.244,52 euro.

IV. maila: 5.659,36 euro.

– D mailako estamentu titulaziogabeak:

I. maila: 1.223,32 euro.

II. maila: 2.446,64 euro.

III. maila: 3.669,96 euro.

IV. maila: 4.893,28 euro.

2. Aurreko atalean aipatutako zenbatekoak urtero eguneratuko dira, Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legeetan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen ordainsarietarako ezartzen den igoera-portzentajearen arabera.

Bigarren xedapen gehigarria. Egoera bereziak.

1. Foru lege honek araututako lanbide karrerako sistema bere aplikazio-eremuko langileei apli-

katuko zaie Osasun Departamentuan eta haren erakunde autonomoetan zuzendaritza-, zuzendariordetza- edo burutza-postuetan edo zuzendaritza-erantzukizuneko beste edozein kargutan ari diren bitartean.

2. Foru lege honek araututako lanbide karrerako sistema bere aplikazio-eremuko langileei aplikatuko zaie langile-ordezkaritzako organoetako kide diren bitartean, legez ezarritako ordu-kredituaz lanaldi osoan baliatzen direnean. Kasu horretan, mailaz igotzeko, egonaldiak betetzeaz gain, prestakuntza, irakaskuntza eta ikerkuntzari buruzko baremo-atala betetzea baino ez da eskatuko eta ebaluatuko.

Hirugarren xedapen gehigarria. Prestakuntzagaritza puntuazioa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak baliabide propio eta publikoekin bermatu beharko du langile guztientzat aurreikusitako gutxieneko prestakuntza-orduak irakatsi, eman eta frogatzen direla, eta eskaintza publikorik ez egoteak ezin die kalte egin foru lege honen aplikazio-eremuko langileei lanbide karreran igotzeko baldintzak betetzeari dagokionez. Eskaintza publiko hori bermatzen ez bada, gutxieneko prestakuntza-orduak baremoko gainerako atalekin osatuko dira.

Berme hori osasun arloko gainerako langileen lanbide-karrierari aplikatuko zaie.

Laugarren xedapen gehigarria. Osasun-arloko langileen beste lanbide karrera batzuetako hizkuntza-balorazioa.

Foru lege honetan jasotako hizkuntza-balorazioa aplikatzekoa izanen zaie osasun arloko gainerako langileen lanbide-karrierari.

Bosgarren xedapen gehigarria. Foru Komunitateko Administrazioan (Osasun Departamentuan izan ezik) lan egindako denbora aitortzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko langile guztientzako lanbide karrera arautzen den unean, foru lege honen aplikazio-eremutik kanpo dauden osasun arloko langileek kasuan kasuko estamentuan emandako zerbitzuak aitortuko dira.

Lehen xedapen iragankorra. C eta D mailako osasun arloko langileen hasierako kokapena lanbide karrerako kasuko mailan.

1. Foru lege honen aplikazio-eremuko langileen hasierako kokapena honela eginen da: langileari esleituko zaio dagokion lanbide karrerako maila, kontuan izanda zenbat urte egin dituen kasuan kasuko estamentuan Europar Batasuneko

estatu kideetako osasun-sistema publikoetan, honako eskala honen arabera:

a) I. maila emanen zaie lanean 5 urte eman badituzte.

b) II. maila emanen zaie lanean 14 urte eman badituzte.

c) III. maila emanen zaie lanean 22 urte eman badituzte.

d) IV. maila emanen zaie lanean 29 urte eman badituzte.

2. Zerbitzuan emandako urteen gaidikina kontuan hartuko da etorkizunean lanbide karreraren mailaz igotzeko. Igoera hori foru lege honetan ezarritako prozeduraren arabera egingen da.

3. Xedapen iragankor honetan aurreikusitako hasierako kokapenak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorio ekonomikoak izanen ditu.

Bigarren xedapen iragankorra. Foru lege honetan araututako lanbide karrerako sistema gradualki ezartzea C eta D.1 mailetako osasun arloko langileei.

Foru lege honetan jasotzen diren lanbide karrerako zenbatekoak modu progresiboan ordainduko dira, gehienez ere lau urtean, aurrekontuko baliabideen arabera, gutxieneko hauen arabera:

– Hasierako kopuruaren % 50, 2024an.

– Hasierako kopuru horren % 70era arte, 2025ean.

– Hasierako kopuru horren % 90era arte, 2026an.

– Gainerakoa, 2027an.

Hirugarren xedapen iragankorra. Foru legea garatzeko arauak.

Azken xedapenetako bigarren xedatutako arau-garapen berariazkoa onesten ez den bitarte-

an, analogiaz aplikatuko da ekainaren 8ko 54/2009 Foru Dekretua, zeinaren bidez garatzen baita maiatzaren 30eko 8/2008 Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko diplomadunen lanbide karrerako sistema arautzen duena.

Laugarren xedapen iragankorra. Etorkizunean lanbide karrera zabaltzea Foru Komunitateko Administrazioako langile guztiei.

Foru lege honetan C eta D taldeetako osasun arloko langileen lanbide karrerari buruz ezarritakoa langile horiei aplikatuko zaie, ezertan galarazi gabe etorkizunean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako langile guztiak sartzea jardun-ebaluzioko eredu homogeen batean, zeinak, zerbitzu publikoen ematearen hobekuntza aintzat hartuta, langile publiko guztientzat ezar daitezkeen lanbide karrerako sistemetakos progresioa zehaztuko baitu.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehena. Foru lege hau garatu eta betetzeko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau bete eta garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak jaulkitzeko.

Mailak esleitzeari dagokionez, 2025ean izapidetuko da foru lege hau garatzeko foru-dekretuaren proiektua.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta bihamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00011. Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretua aldatzen duena

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko irailaren 19an egindako bilkuran, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretua aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa bete, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretua aldatzen duena

HITZAURREA

Ekonomia eta Ogasun Departamentuan eta Nafarroako Foru Ogasuna erakunde autonomoan, ikuskapen-alorreko langileek eta kudeaketa-alorreko ogasun-teknikariek soilik jasotzen dute gaur egun produktibitate-osagarria, xedetzat duena pizgarri bat ematea Ogasuneko langileek zerga-iruzurraren aurka egindako lanari; halatan, osagarririk gabe dihardute erakunde autonomoan lan egiten duten gainerako langileek, zeinek, beren eguneroko lanarekin, zerga-iruzurraren aurkako borrokan parte hartzen baitute, aipatu osagarria jadanik jasotzen dutenekin batera.

Diskriminazio-egoera hori ez da Zerga Administrazioko Estatu Agentzian gertatzen, eta hori konpontzeko saioa egin zen Zerga-iruzurraren aurkako 2016-2019 Planean. Nafarroako Gober-

nuak hartutako konpromisoa izan zen 2018an zuzentzea egoera hori.

Epe hori amaitu zenetik sei urte igaro direnean, kontua da diskriminazio-egoerak bere horretan dirauela, eta kalte egiten diola Nafarroan zerga-iruzurraren aurka egiten den borrokaren eraginkortasunari.

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren 40. artikulua 4. apartatua. Honako testu hau izanen du:

«4. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Tributu Ikuskapenerako Zerbitzuari atxikita egonik ikuskapen-eginkizunak egiazki betetzen dituzten funtzionarioek zilegi izanen dute produktibitate-osagarri bat jasotzea, zeinarekin ordainduko baitira aipatu funtzionarioek beren lana egitean erdie-tsitako errendimendu berezia, aparteko jarduketa eta jarritako interes edo ekimena.

Osagarri horren zenbatekoak ezin izanen du kasuan kasuko mailaren hasierako soldataren 100eko 55 gainditu.

Aurreko apartatuak aipatzen dituen baldintzei buruzko irizpena egin beharko da ikuskapen-eginkizunarekin zuzeneko zerikusia duten elementu objektiboen arabera, zeinak lotuta egonen baitira Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ezarritako helburu eta emaitzak lortzeari.

Halaber, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari atxikitako Ogasuneko gainerako teknikariek eta Nafarroako Foru Ogasuna erakunde autonomoari atxikitako gainerako langileek zilegi izanen dute produktibitate-osagarri hau jasotzea. Osagarria ezin izanen da kasuan kasuko mailaren hasierako soldataren 100eko 15 baino gehiagokoa

izan, eta lotuta egonen da aipatu Departamentuko kontseilariak ezartzen dituen helburu eta emaitzen lorpenari.

Epe jakin batean produktibitate osagarriatik jasotzen diren kopuruek ez dute eskubide eskuratuturik sortuko eta ez dute ondorioz izanen hurrengo denboraldietako balorazio edo apreziazioei dagokienez».

Xedapen gehigarri bakarra. Produktibitate-osagarria arian-arian ezartzea.

Arian-arian ezarriko da Nafarroako Foru Ogasuna erakunde autonomoari atxikita egonik produktibitate-osagarria egun jasotzen ez duten langileentzat foru lege honen bidez onesten den

produktibitate-osagarria. Kasuko negoziazio kolektiboaren prozesua egiten denean, ondorengo hiru aurrekontu-ekitaldietan aplikatuko zaie ukitutako langileei, halako moduan non kasuko mailako hasierako soldataren ehuneko bostera bitarte aitortuko baita ekitaldi horietako bakoitzean.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoari kontra egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2025eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00092. Erabakia, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita Herritarren Segurtasuna Babesteko Legea alda dezan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko irailaren 19an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Herritarren Segurtasuna Babesteko Legea alda dezan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Herritarren Segurtasuna Babes-

teko Legea alda dezan, Espainiako Konstituzioan eta nazioarteko legedian jasotzen diren oinarriko eskubideen eta askatasunen erabileraren babesarekin bat etor dadin, egungo koalizio-gobernua osatzeko hartu ziren konpromisoak betetzeko.”

Iruñean, 2024ko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00094. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jarrai dezan betetzen iaz egin ziren akordioak, bakarrik dauden adingabeen harrerari buruzkoak

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko irailaren 19an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jarrai dezan betetzen iaz egin ziren akordioak, bakarrik dauden adingabeen harrerari buruzkoak. Erabakia eragin zuen mozioa Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu zuen, eta 2024ko irailaren 5eko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bere aldepena ematen dio Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Legearen 35. artikulua aldatzeari, mekanismo lotesle eta solidarioak ezar-

tzearren, migratzaile diren haurren eskubideak bermatzen lagunduko dutenak, zein ere den haien jatorri nazional, etniko edo soziala, arraza edo erlijioa, bai eta bermatzen ere Estatuak bere gain hartuko duela beren laguntza-ahalmena gaindituta daukaten autonomia-erkidegoen aparteko baliabideak ordaintzeko finantza-konpromisoa.

2. Nafarroako Gobernua premiatzen du jarrai dezan bakarrik dauden adingabeen harrerarako iaz adostutako akordioak betetzen, bai eta Kanarietan 2024ko uztailan egindako Haurren Konferentzia Sektorialaren konpromiso berriak betetzen ere.

3. Haur eta Gazteria Ministerioa premiatzen du jarrai dezan haur migratzaileen eskubideak bermatzeko neurriak bultzatzen.

4. Diputatuen Kongresuko talde parlamentarioak premiatzen ditu aldeztu dezaten Atzerrita-

rrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Legearen 35. artikulua aldatzeari, bermatzearen Estatuak bere gain hartuko duela beren laguntza-ahalmena gaindituta daukaten autonomia-erkidegoen aparteko baliabideak ordaintzeko finantza-konpromisoa, bakarrik dau den adingabeei dagokienez.

5. Erabakitzen du akordio hau Gazteria eta Haurtzaro Ministerioari eta Nafarroako Gobernuari igortzea".

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00096. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa, konfiantza eta konpromisoa adierazten baitizkio Nafarroako Unibertsitate Publikoari

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko irailaren 19an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa, konfiantza eta konpromisoa adierazten baitizkio Nafarroako Unibertsitate Publikoari. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoarekiko babesa, konfiantza eta kon-

promisoa adierazten du, eta Nafarroako Gobernuari eskatzen dio NUPi behar adina baliabide ekonomiko eman diezazkiola, errektoreak 2024-2025 ikasturtearen hasiera-ekitaldian adierazitako erronkei aurre egin ahal izan diezaien”.

Iruñean, 2024ko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00099. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita lankidetzan estuan jardun dadin Garraio Ministerioarekin eta Espainiako Gobernuarekin, bermatze aldera nazioarteko zabalerako abiadura handiko trenen 2030a baino lehen iritsiko dela Iruñera

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko irailaren 19an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita lankidetzan estuan jardun dadin Garraio Ministerioarekin eta Espainiako Gobernuarekin, bermatze aldera nazioarteko zabalerako abiadura handiko trenen 2030a baino lehen iritsiko dela Iruñera. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Nafarroako Gobernua premia-tzen du lankidetzan estuan jardun dadin Garraio Ministerioarekin eta Espainiako Gobernuarekin, bermatze aldera nazioarteko zabalerako abiadura handiko trenen 2030a baino lehen iritsiko dela Iruñera, Espainiako Gobernuaren konpromisoei jarraikiz.

2. Espainiako Gobernuari eskatzen dio nabarmen handitzeko AHTaren Nafarroako zatirako

inbertsioak, halako moduan non finantzaketa-eritmo egokia lortuko dela ziurtatuko baita, adituek adierazitakoa bezalakoa, urtean 350 milioi euro beharko lirakeelako.

3. Obren egutegi argi eta zehatza exijitzen du, Nafarroan egiteke dagoen zatia eta Ezkiotik Euskal Y-arekin lotzeko modua barne hartzen dituen.

4. Epeak aktiboki gainbegiratzea eta obrei esleitutako Europako funtsak inbertitzea eskatzen du, bai eta Nafarroak proiektua osatzeko proportzio egokia jasotzen duela ziurtatzea ere.

5. Nafarroako Gobernua premia-tzen du Landa-bengo begiztaren eta Iruñeko geltoki berriaren konponbidea ahalik eta lasterren sustatu dezan”.

Iruñean, 2024ko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00101. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernuari eskatzen baitzaio behar diren izapide guztiak bizkortzen jarrai dezan, berme guztiak mantenduz, abiadura handiko trenen ahalik eta lasterren osatu eta amai dadin, Nafarroan, eta, bereziki, Zaragoza eta Castejón lotzen dituen tartea

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko irailaren 19an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernuari eskatzen baitzaio behar diren izapide guztiak bizkortzen jarrai dezan, berme guztiak mantenduz, abiadura handiko trenen ahalik eta lasterren osatu eta amai dadin, Nafarroan, eta, bereziki, Zaragoza eta Castejón lotzen dituen tartea. Erabakia eragin zuen mozioa Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztu zuen, eta 2024ko irailaren 17ko 104. Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitatu zen. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

1. Izapide guztiak bizkortzen jarrai dezan, berme guztiak mantenduz, Abiadura Handiko Trenen ahalik eta lasterren osatu eta amai dadin, Nafarroan, eta, bereziki, Zaragoza eta Castejón lotzen dituen tartea.

2. Espainiako Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko elkarrizketa arin eta eraikitzailea mantentzeko eskatzen dugu, bi administra-

zioak oso konprometituta dauden lan baten garapean, zein bere ardurak eta eskumenak baliatuta.

3. Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioaren bidez, Kantauri-Mediterranea trenbide-korridoreko Iruña-Euskal "Y"aren lotura zatia-ri buruzko informazio-azterlanerako baterako zuzendaritzarako Sustapen Ministerioak, EAEko Administrazioak eta NFK-ko Administrazioak 2011n sinatutako Lankidetzarako Protokolo Orokorra aplikatuz, Ministerioak egin beharreko azterlanak egin ondotik, erakunde horiek horren defini-

zioan parte hartzea berma dadin, ondoren oneste aldera Iruñerriaren eta euskal Y-a izeneko konezioaren arteko trafiko mistorako abiadura handirako trazadura-azterlan informatiboa (bide bikoi-tzekoa eta zabalera estandarrekoa).

4. Urteko aurrekontu-plangintza ezarriko duen kronograma bat argitara ematea, lanak ahalik eta lasterren amaitzera eramango gaituena".

Iruñean, 2024ko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00095. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Kataluniaren finantzaketa bereziko akordioa

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko irailaren 19an egindako bilkuran, ezetsi du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Kataluniaren finantzaketa bereziko akordioa. Mozioa 2024ko

irailaren 5eko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00100. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita neurriak har ditzan etxebizitza bat eskuratzea errazteko

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko irailaren 19an egindako bilkuran, ezetsi du Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteko Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita neurriak har ditzan etxebizitza bat eskura-

tzea errazteko. Mozioa 2024ko irailaren 17ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-24/MOC-00102. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita aintzat har dezan Euskararen Nafar Kontseiluaren irailaren
12ko txostena**

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko irailaren 19an egindako bilkuran, ezetsi du EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Eneko Maiz Ulaiar andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita aintzat har dezan Euskararen Nafar Kontseiluaren

irailaren 12ko txostena. Mozioa 2024ko irailaren 17ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

